

# 2022ko MEMORIA

40  
1983  
2023

  
**Lantegi Batuak**  
Ehuneke ehun gai Cien por cien capaces

  
Lantegi Batuak






LANTEGI BATUAK irabazi-asmorik gabeko erakundea da; kalitatezko lan- eta okupazio-aukerak eskaintzen dizkie desgaitasuna duten pertsona guztiei, batez ere adimen-desgaitasuna dutenei eta Bizkaikoei. Horren bidez, gure helburua da laguntza ematea ahalik eta garapen eta bizi-kalitate handienak lor ditzaten eta gure gizartea bidezkoagoa eta solidarioagoa izan dadin.

Hori lortzeko, ekimen berritzaile, iraunkor eta lehiakorrak garatzen ditugu, erakundeko pertsona guztien gaitasunak optimizatzeko eta beren bizi-proiektua aurrera joan dadin laguntza egokiak emateko.




3.179

  
pertsona



Desgaitasuna



Intelektuala



93,4 MILIOI € salmentetan



236 MILIOI €

Gizarte-balio integratua  
Valor social integrado



40  
1983  
2023

# 2022AN SORTURIKO GIZARTE-BALIOA

Gizarte-balio integratuak islatzen du nolako inpaktu orokorra sortzen dugun hainbat interes-talderekin elkarreraginean aritzen garenean. Hori kalkulatzeko, Kontabilitate Soziala aplikatzen da, zeinak lorturiko onura integratzen duen, bai merkatu-jardueren bidez sortutakoa bai, transakzio monetariorik gertatu gabe ere, interes-taldeei balioa ematen dieten jardueren bidezkoa.

## Erabiltzaileak eta familiak

- Diru-sarrerak
- Zaintza-ordu liberatuak
- Mantenua
- Gastu medikoak
- Programa espezifikoak
- Kokapena

## Gizartea

- Balio erantsia
- Soldatak
- Zergak

## Administrazioa

- Kotizaziorik gabeko pentsioak
- Familia-zaintza
- Osasun-prestazioak
- Enplegua
- Zergak

## Hornitzaileak

- Egindako erosketen balio erantsia

## Langileak

- Soldatak
- Prestakuntza

## Bezeroak

- Lehiakortasuna
- Deslokalizaziorik eza





# PERTSONAK





PERTSONAK

# ORIENTAZIOA

pertsonen garapen soziolaboralerako

**786 orientazio-eskaera jaso dira**

(496 gizonezko eta 290 emakumezko;  
106 gizonezko eta 67 emakumezko  
adimen-desgaitasunarekin)

**955 informazio-ekintza desgaitasuna duten pertsonentzat eta haien familientzat**

(aurrez aurreko arreta, telefono bidezkoa,  
dokumentazio-bidalketa)

**1.711 orientazio-ekintza**

(taldekoak, banakakoak, praktiken eta beka profesionalen kudeaketa, etab.)





# PERTSONAK GARAPEN SOZIOLABORALA

Gizarteratze-ibilbideak, pertsona bakoitzari egokituak gaitasunen arabera

## Laguntza-plan indibidualizatuak



# 756

**pertsonak (adimen-desgaitasuna eta gaixotasun mentala dutenak)**

beren laguntza-planak, eurak garatzeko xedeak eta beren lanpostuen banakako egokitzapenak berrikusi dituzte.



## PERTSONAK

**143** pertsonak aurrera egin dute profesionalki:

**55** pertsona  
**ZERBITZU OKUPAZIONALAREN**  
barruan

**27** pertsona  
**ENPLEGU-ZENTRO BEREZIAREN**  
barruan

**34** pertsona  
**ZERBITZU OKUPAZIONALETIK**  
**ENPLEGU-ZENTRO BEREZIRA**

**27** pertsona  
**BIZKAIKO ENPRESETARA**  
(9 emakumezko eta 18 gizonezko)

**796** pertsona  
**ZERBITZU OKUPAZIONALAREN** barruan  
(268 emakumezko eta 528 gizonezko)

**1814** pertsona  
**ENPLEGU-ZENTRO BEREZIAREN** barruan  
(584 emakumezko eta 1230 gizonezko)

**129** pertsona  
**ENPLEGU LAGUNDUAN**  
(53 emakumezko eta 76 gizonezko)





# PERTSONAK EGOKIPLAN

Zerbitzu okupazionala,  
zahartze aktiboari laguntzeko

Egokiplan zerbitzu okupazionalerako eredia da, helburua izanik beharrezko laguntzak, jarduerak eta dinamikak sortzea desgaitasun intelektuala duten pertsonen zahartze goiztiarraren zantzuei aurre egiteko.

7

ZENTRO

(Getxo, Zalla, Otxarkoaga,  
Sondika, Txibila, Basauri  
eta Erandio)

75

ERABILTZAILE




## PERTSONAK

# PRESTAKUNTZA

Prestakuntza egokitua eta praktikoa garatzen dugu, gaitasunak eta garapen profesionala sustatzera bideratua.

**43.877** PRESTAKUNTZA-ORDU **71** ekintza ETENGABEKO PRESTAKUNTZAN

**% 81ek** hartu dute parte etengabeko prestakuntzako ekintzaren batean (% 38 emakumezkoak eta % 62 gizonezkoak)





# PERTSONAK PRESTAKUNTZA LAN ESKOLA

Prestakuntza-programa hau enplegarritasunera bideratuta dago, eta 2016an sortu zen.

Lan Eskolaren bidez, prestakuntza egiaztatua garatzen dugu Lantegi Batuaken zentro homologatuetan edo laguntzaileetan, betiere arreta enpleguan jarrita.


Prestakuntza teorikoa tutoretzapeko praktikekin eta banakako laguntzarekin osatzen dugu, bai Lantegi Batuaken bai Bizkaiko beste enpresa batzuetan.

## PRESTAKUNTZA-EKINTZAK:

7

PROFESIONALTASUN-  
ZIURTAGIRIEI  
LOTUAK

PARTE-HARTZAILEAK  
34 EMAKUMEZKO32  
32 GIZONEZKO  
% 61 ADIMEN-DESGAITASUNA  
DUTEN PERTSONAK



% 26  
KONTRATATUAK  
LEHENENGO  
3 HILABETEETAN

## AKADEMIA EGOKITUA

2022an, berriro jarri zen martxan Akademia Egokitua; haren helburua da Lantegi Batuakeko adimen-urritasuna duten 112 pertsonari Bilboko Udalaren LEPa prestatzen laguntzea.





**PERTSONAK**

# ENPLEGU LAGUNDUA

Enplegu lagundurako programaren helburua da desgaitasuna duten pertsonak gure lurraldeko enpresetan sartzea.

Adimen-urritasuna duten pertsonak Bizkaiko enpresetan kontratatzea lortzeko, Enplegu Lagunduaren programak aholkularitza ematen die enpresei, eta kontratazio-prozesu horretan laguntzen die. Gainera, lanposturako pertsonarik egokiena hautatzen du, eta hura prestatzeaz eta, behin lanean hasita, haren jarraipenaz arduratzen da.

**346**

**BISITA ENPRESETARA**  
(behaketa, legea betetzeko aholkularitza eta kontratazioa)

**27**

**KONTRATAZIO BERRI**  
22 enpresatan

**1.866**

**JARRAIPEN**  
lan-prestatzaileei

**129**

**PERTSONA KONTRATATUTA**  
% 53 emakumezkoak  
% 76 gizonzkoak,  
93 enpresatan





## PERTSONAK

2022an, Lantegi Batuakek

**50,39 M €-ko** Gizarte-balio Integratua (GBI) sortu zuen

desgaitasuna duten pertsonentzat eta haien familientzat, diru-sarreraren, zaintza-ordu liberatuen, mantenuaren, gastu medikoen eta abarren bitartez.

Gainera, langileei **36 M €-tik** gorakoa izan zen, soldatetan edo prestakuntzan, esaterako.



# ENPRESA-JARDUERA, HELBURU SOZIALAREKIN

Profesionalizazioa, apustu teknologikoa eta gure prozesuen hobekuntza: horiexek dira bai industria-sektoreko bai zerbitzu-sektoreko gure bezeroentzako zerbitzuaren gakoak.

Haien proiektuetan esku hartzen dugu, teknologiak eta zerbitzu industrialak kanporatuz.

Badugu enpresen eta administrazio publikoen beharretara egokitutako zerbitzu-sorta zabala, bizitegi-sektoreetan, zerbitzu publikoetan, autonomia pertsonalean eta abarretan.





**93,3 M €**  
FAKTURAZIOA

**4,17 M €**  
INBERTSIOAK

**41,5 M €**  
BALIO ERANTSIA  
Industrian 28,7 M €  
Zerbitzuetan 12,8 M €

**124**  
BEZERO BERRI  
29 industrian  
95 zerbitzuetan

## INDUSTRIAN

Elektronika  
Muntaia elektromekanikoak  
Kableak  
Transformazio metalikoa  
Logistika


## ZERBITZUAK

Garbiketa  
Lorezaintza  
Vending dokumentuen kudeaketa  
Etxez etxeko janaria  
Laguntza teknikoak  
Publizitate-banaketa, garraioa eta posta  
Inprimaketa digitaleko zerbitzuak  
Facility services

## ENPRESA-JARDUERA, HELBURU SOZIALAREKIN

Lantegi Batuak, gure bezeroen beharrak lan-aukera bihurtzen ditugu.

## DIBERTSIFIKAZIOA





## ENPRESA-JARDUERA, HELBURU SOZIALAREKIN

Balioa sortzen dugu:

**21 M €**  
gure hornitzaileei

eta **114,6 M €**  
gure bezeroei

lehiakortasun-kontzeptuetan, besteak beste deslokalizazioa saihestuz eta erosketen balio erantsiaren bidez.





# GIZARTE- KOHESIOA

Gizarte-kohesioa bultzatzen dugu geure lurraldean, eta, gainera, eragin soziala sortzen dugu. 2022an, Lantegi Batuak 236 milioi euroko Gizarte-balio Integratua sortu zuen.

Kontabilitate sozialaren bidez, ekonomia tradizionalan ikusten ez diren balioak neur ditzakegu, hala nola pentsioetan aurrezteak, osasun-gastuak edo prestakuntzan inbertitzeak. Balio horiek guztiek eragina dute gizartean, eta hura garatzen laguntzen dute.





## GIZARTE-KOHESIOA

2022an, desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzeko eta garatzeko gure ahaleginek eragin handia izan zuten gizartean, honela:

**60,5 M €** sortu dira  
**Administrazio Publikoei**  
sortutako **Gizarte-balio Integratuan**  
(aurreztu baitira kotizazio gabeko pentsioetan,  
familia-zaintzetan, osasun-prestazioetan,  
enplegua sortzean eta abarrean)

**127 M €** sortu dira  
**gizartearentzat**  
(balio erantsia, soldatak, zergak...).







# PARTE-HARTZEA GIZARTEAN

## 218 EKINTZA KOMUNITATEAN

Adimen-desgaitasuna duten pertsonen —batez ere zerbitzu okupazionalaren erabiltzaileek— lankidetzako eta pedagogiako hainbat jardura komunitarioran parte hartu zuten, kultura-, kirol- eta prestakuntza-jardueretan, besteak beste.

## BISITAK

103 pertsona etorri ziren gu ezagutzera 2022an. Urte osoan, Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak, Estatuko eta Europako gizarte-sektoreko entitateak eta tokiko ikastetxe ugari bisitatu gintuzten. Nazioarteko unibertsitateetako taldeen bisitak ere izan genituen, hala esparru askotako akademikoena nola ikasleena.

## 25 JARDUNALDI

Horietan partekatzen ditugu, batez ere, gure garapen sozioraboreko ereduak, gure laguntza-metodologiak, Lan Eskola prestakuntza-programa eta kontratazio publiko arduratsuan eta gizarte-kontabilitatean dugun esperientzia.



## GIZARTE-KOHESIOA

# PARTE-HARTZEA GIZARTEAN

## BEKA-DEIALDIA

desgaitasuna duten pertsonentzat, Deustuko Unibertsitatea, EHU, UNIR eta Mondragon Unibertsitatearekin lankidetzan.

## AINTZATESPENAK

ESKER ON AITORPENA, BEAZena, Bizkaiko enpresen gizarte-konpromisoa bereizten duena. Maskarak birziklatzeko proiektuagatik jaso genuen.

Proiektu horrek berak Bilboko Ur Partzuergoaren LURRA Ssaria jaso zuen, Bihotzez kategorian.

GEACCOUNTING saria, gizarte-kontabilitatearen aplikazioan egin dugun ibilbideagatik.

## EUSKARA SUSTATZEKO PLANA

2022an abiatu zen Euskara Sustatzeko eta Sendotzeko Ekintza Plana, eta 2025ean amaituko da.





40 |  
1983  
2023



# Lantegi Batuak

Ehuneko ehun gai

Cien por cien capaces



[www.lantegibatuak.eus](http://www.lantegibatuak.eus)